



## Bakaikuko leku-izenek hausnarrean

Jesus ONDARRA ERDOZIA

ISBN: 978-84-9172-104-8  
Saio eta Testigantza, 219  
2019. urtea / 17 x 24 cm / 432 or.

**24,00€**

Lan honen egilearen asmoa bere belaunaldira bizirik etorri diren toponimo guztiak biltzea izan da; baita izenak ulergarri egitea (esanahia) ere, dagokien lekuarekin lotuz, atzera berriz erabilgarri bihurtzeko, gaurko bakaikuarrek, gazteago izan eta areago, ahazturik baitaizkate izen asko.

Artxiboak arakaturik, batik bat Nafarroako Artxibo Orokorreko dokumentuak XVI. mendetik hasita, lekuetan oinez ibiliz, lekuen geografia eta historia –izenen historia (alderak)– aztertuz, leku-izenen bilakabidea eta esanahia zehaztu nahi izan da.

Nabarmentzen dira agertzen diren Bakaikuko toponimiaren eta euskararen beraren berezitasunak, kontuan hartuta, beti ere, Burunda eta inguruko testuingurua.

Bakaikuko toponimiaren ikuspegi osoa emateko asmoarekin, toponimo historiko guztiak ere ekartzen dira, etxe-izenak, historikoak gehienak, barne.

.....

### Jesus Ondarra Erdozia

Bakaikun jaio zen 1939an. Hamaika urte zituela fraidetara eraman zuten eta han egon zen, bertako ikasketak egiten, hogeitalau urte bete arte. Bide hori utzita, UNEDen ikasi zuen gero, bertan Geografia eta Historia Lizentziatura titulua eskuratu.

Lanbidez, Nafarroako Foru Ogasunean Kudeatzaile eta Ikertzaile gisa ibili zen, arlo juridiko-fiskala lantzen. Horretaz bi lan tekniko argitaratu zituen: *IVA: Las subvenciones y el gravamen del consumo* (Aranzadi Editorial. Revista de Jurisprudencia Tributaria, 1999) eta *Convenio Económico. IVA. Concierto Económico* (IVAP, 2000).

Jubilatu ondoren, buru-belarri dabil Bakaikuko toponimia eta euskara ikerketa lanetan. Horren emaitza da saio hau.

Esku artean dauzkan egitasmoak: Bakaikuko mapa toponimikoa eta Bakaikuko euskararen azentu-sistema.



[www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)

948 326 535 • [soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com)